

noaua

Ugartondoko
etxebizitzetan izena
emateko epea ixtear da

Zerbitzu asko udako
ordutegian dira

Zubieta, Urdaiaga eta
Atxegaldeko festetako jai
egitarauak batu ditugu

GuraSOseko bi ordezkari Madrilgo Senatuan izan berri dira

**“Milioi askoko iruzurra
salatzera etorri gara”**

ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Begiraleekin antolatutako jarduerak.

Ontzien alokairua urte osoan zehar

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiaketan.

657 794 677

www.begi-bistan.com · info@begi-bistan.com

FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO, HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H, (edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es

DĒMA PLAZAN ĒMANALDIA

UZTAILAK 28, OSTIRALA

·19:00-21:00 Ekitaldia eta gero parrilan egindako "Borda-Txuri" oilasko pintxoak 2€

·22:00-01:00 EROKOMERI erromeria.

HURBILAGOKO TABĒRNEK ANTOLATUTA

hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteak

Albiste iruditzen

Gas hodiak sartzen hasiak

Begi bistakoak dira jada, uztailaren 3an Santuenea Zubietarekin lotzen duten bidean hasitako lanak. Erraustegia, industriagunea eta makroartzela kokatuko dituzten eremua hornituko duten gas hodiak sartzen hasiak dira jada Ameri inguruan. Zaintzapean dute eremua. Aldez aurreko inolazko jakinarazpenik gabe, ezustean uztailaren 3tik guztiz itxita zegoen bidea irekita dago berriz, oinezko eta txirrindularientzat. As-teburuetan, lanak etenda dauden egunetan alegia, ibilgailuak ere igarotzen dira bertatik. Lan egunetan, zailagoa da eremu hau zeharkatzea. Gutxienik irailaren 3ra arte iraungo dute obrek.

Zubietako Herri Batzarrak eta Usurbilgo Udalak, hainbat herritarrek bezala, eskatua dute lanok geraraztea, irtenbide adostu bat bilatu artean behintzat. Lanok Zubietan, Donostiako lurretan egiten ari dira hiriburuko Udalak baimenduta.



Zubietako Herri Batzarrak eta Usurbilgo Udalak, hainbat herritarrek bezala, eskatua dute lanok geraraztea; irtenbide adostu bat bilatu artean behintzat.

Usurbilgoak ez du lanok egiteko baimena eman. Are gehiago, baldintza eta neurri

zuzentzaileak adostea eskatua dio Donostiako Udalari.

Laburrean

1958an jaiotako bazkaria

Irailaren 9rako antolatu dute otordua, arratsaldeko 14:00etan Antxeta jatetxean. Bazkaritarako izena, irailaren 3a baino lehen eman behar da. 50 euroko ordainketa egin behar da Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0140 331400030840.

Muxurbil, ikasturte berriari begira

Irailan abiatuko du ikasturte berria Muxurbil antzerki taldeak. 5 urtetik gorako herritar orori zuzenduak egongo diren klaseak ostiral arratsalde eta larunbat goizetan izango dira. Izena eman eta argibide gehiagorako: 675 71 23 83 (Ixabel).

Abuztuan itxita egongo da KzGunea

Goizez zabalik egoten segiko du Usurbilgo KzGuneak, uztailaren 28ra arte. Abuztuan itxita izango da, eta irailaren 1etik aurrera berriz zabalik izango da arratsaldez, 16:00-20:00 artean. Informazio gehiagorako: 943 023 684.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Imanol Ubeda

Ni ere, liburutegien alde

Liburutegien aldeko manifestua irakurri berri dut. Iban Zaldua idazlearen *Oharrak eta hondarrak* blog-ean topatuko duzue.

Aitorpen batekin hasten da idatzia: "Liburutegien aspaldiko erabiltzailea naiz, baina aitor dut gero eta gustukoagoak ditudala (...). Agian izango da liburutegiek (...) eman duten jauziagatik, urte hauetan guztietan, fitxategi astunen atzean (...) gotortzen ziren erakunde erlatiboki hermetikoak izatetik, gizarteari begira geroz eta irekiago aritzera, eta erabilgarritasunaren aldetik askoz ere espazio irisgarriagoak bihurtzera".

Liburutegien aldeko manifestua hamar goiburuokin laburbildu daiteke (Iban Zalduaren idatzia, dena den, osorik irakurtzeko modukoa da).

- 1) Liburuz beterik daudelako.
- 2) Isiltasunaren gordeleku pribilegiatu direlako.
- 3) Gure gizartearen jite ekonomikoa gero eta baztertzaila-

goa denean, guztientzako irekita daudelako, eta kulturarako sarbidea eskaintzen dietelako gutxi daukatenei (ere).

4) Aurrekoarekin lotuta, publikotasunaren ikurtzat jo daitezkeelako.

5) Kritika literarioan aritzen direlako, zeharka bada ere.

6) Iraultza digitalari bizkarra eman gabe, kultura analogikoari eutsi egin dioten lekuak direlako.

7) Literaturzale edo irakurzale ez ezik, liburuzale garenontzat espazioa aurrezteko aukera ezin hobea eskaintzen digutelako.

8) Irakurketaren alderdi sozializatzailearen bultzagile nagusienetakoak direlako, irakurle tailerren eta antzeko ekimenen antolatzaile gisa.

9) Eta irakurketaren alde sozialari buruz ari garela, nola ahaztu liburutegien aldeko beste argudio hura: ligatzeko leku mitikoak direla dioena alegia. "Mitikoak direla diot, niri ez zaidalako sekula gertatu, nahiz eta

horren inguruko istorio asko entzuna naizen...", Iban Zalduaren hitzetan.

10) Definizioz, leku ordenatuak diren arren, aniztasunaren eta jakintzaren kaosaren ispilu direlako.

Manifestu hau irakurri berrikan, pasarte hau etorri zait burura. Hasier Etxeberria idazlea eta kazetaria martxoaren 29an hil zen. ETB1eko *Sautrela* telebista saioa aurkezten zuen eta askok, akaso, langintza horrekin lotuko dute Etxeberria. Baina idazle gisa, lan ugari plazaratu zituen. Gazte nahiz helduen arloko literatura lan ugari eman zituen argitara. Bestelako argitalpenta ere hartu zuen parte.

Hasier Etxeberria hil zen egunean, Sutegi udal liburutegiko kideek txio hau idatzi zuten Twitterren: "#SutegiLiburutegia-n Hasier Etxeberria gogoan (1957-2017)". Eta hitz hauekin batera, argazki bat ageri zen. Hasier Etxeberriak idatzitako liburuak ageri ziren

bertan. Sutegin, une horretan maileguan hartzeko moduan zeudenak, zehatz esanda.

Txioa sarean ipini eta gutxira, Susa argitaletxe-kokideen deia jaso genuen NOAUA!n. Hunkituta sumatu genituen. Hunkituta, eta esker onez. Udal liburutegikoekin keinua eskertu nahi zutela eta bertako kudeatzailearen izena jakin nahi zuten. Txio hura beste txio batekin erantzun zezaketen baina, aukeran, Susakoek telefonoz deitu nahi zuten Sutegira. Bitxia, ezta? Orain, telefonoz deitzea eta telefono deiak hartzea izugarritzko nagia ematen digun garaio-tan.

Iban Zalduaren manifestu honi beste puntu bat gehituko nioke, hortaz. Hemen, Usurbilen, udal liburutegiko langileek egunero erakutsi ohi duten prestutasuna eta pasioa. Eta haur, gazte zein helduekiko erakutsi ohi duten pazientzia.

Aritz Gorriti | **Imanol Ubeda** | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Ika-mika

EAJ, otsoak ardi larruz

Nazkatuta gaude. Gogaituak ardi larruz mozturiko otsoak lasai asko gure inguruan ikusteaz, kale, plaza zein tabernetan. Zinez beharrezkoa ikusten dugu itxurakeria hau guztia salatu eta gauza bakoitzari bere izenez deitzen hastea. Denon etorkizuna baldintzatuko duen erraustegi kriminala babestu eta bultzatzen duten herritarrez hitz egiten ari gara.

Sarritan adierazi du Usurbilgo herriak proiektu ilun eta ustel honenganako aurkakotasuna. Desio honen lekukotzarik argiena dugu pasa den urteko urrian buruturiko herri galdeketa. Prozesu demokratiko hura amaitu bezain laster, denon osasuna

kinka larrian ipiniko duen muntrotro hau ontzat ematen duten zenbait usurbildarrek zera adierazi zuten: "Erraustegia ez da herri honen kezka, gehiengoak ez baitu parte hartu galdeketa". Parte hartzea %43koa izan zen. Aurten maiatzaren 7an Herritzartu plataformak antolatutako herri galdeketa inguruan, ordea, ondorengo irakurketa egin zuten: "Gure etorkizunaz erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatu dugu usurbildarrok". Kasu honetan herritarren %38ak hartu genuen parte. Bi irakurketen arteko kontraesanak ulergaitza dirudien arren, argi dugu zer dagoen atzean. Ezkutuko interes politiko eta ekonomikoak. Herritar talde hau interes horien baitan mugit-

zen da, komeni zaionean, komeni zaiona egin eta esanez. Txalo bero bat.

Jende honek ez du inongo inizatibarik hondakinen afera konpontzeko. Haien agintarien morroi dira. Konfliktu honi konponbide bideragarri bat topatzen ahalegindu beharrean, nahiago dute herri honi kapitalaren logikan oinarrituriko sistema inposatzea. Hain zuzen Lezoko alkatearekin gertatutakoa dugu adibide. Lezoko hondakinen bilketa sistemarako adostutako irtenbide bat bilatzen saiatu zen. Baina eredu mistoaren aldeko iritzia alderdikideen artean zabaltzearen beldur (errausteko hondakin gutxiago izango bailituzkete), agintariak pertsona hau

kargua uztera gonbidatu eta dimittitu egin behar izan zuen.

Usurbilgo EAJk, ordea, fin betetzen ditu goitik diktaturiko aginduak, Gipuzkoa Buru Batzarretik datozenak. Inongo kezka eta lotsarik gabe defendatzen dute erraustegiaren eraikuntzarekin hondakinekin loturiko arazo guztiak amaituko direla.

Jarrera horrekin jarraituz gero, gure etorkizuneko minbizi guztien (ekonomiko, ingurugiroko, osasuneko, etiko...) erantzule izango zarete. Burua duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian eta bihotza duenak ez du beste inorenean nahi. Usurbilgo EAJk ez du bururik, ezta bihotzik ere.

Usurbilgo Emai

Ugartondoko etxebizitzetan izen emateko azken egunak

Uztailaren 27ra arteko epea dute interesdunek, Ugartondoko babes ofizialeko 46 etxebizitzetan eta 46 etxebizitza tasatuetan izen emateko epea. Eskabideak udal erregistroan aurkeztu behar dira. Argibide gehiago: usurbil.eus / 943 371 951

Zozketara arteko prozedura urratsez urrats

- Interesdunek eskabideak Usurbilgo Udal erregistroan aurkezteko uztailaren 27ra arteko epea egongo da.
- 10 egun izango ditu gero eskatzaileak, eskabidean egon daitezkeen akatsak zuzendu edo agiriak osatzeko.
- Eskabideak aztertuko ditu Udalak. Gero onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda argitaratuko du. 10 eguneko epea egongo da gero erreklamazioak aurkezteko.
- Aurkeztutako erreklamazioak erantzun, behin-behine-



Uztailaren 27ra arteko epea dago izen emateko.

- ko zerrenda zuzendu eta Udalak behin betiko onartuko du.
- Eskatzaileak zuzenean sartuko dira zerrendetan eta kupoetan.
- Etxebizitzaren zozketa. Zerrenda eta kupo bezainbat zozketa egingo dira, orokorra barne dela.
- Etxebizitzaren behin behingo esleipendunen zerrenda udal iragarki-taulan jarriko dute ikusgai.

- Itxarote-zerrenda osatuko da etxebizitza esleitu ez zaien eskatzaileekin.
- Zozketatik ateratako behin behineko esleipendunen zerrendak eta itxarote-zerrendak Alkatetza dekretuz onartuko dira eta iragarki-taulan jarriko dira ikusgai.
- Interesdunek errekursoak aurkezteko aukera izango dute. Hurrengo pausoa, esleipenaren formalizazioa.

Merkataritza lokal huts batean jarduera ekonomiko berri bat abiatzeko udal

laguntza deialdia

Ekintzailea izan eta Usurbil-en hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat jarri nahi duenak, udal diru-laguntza deialdira aurkeztu daiteke urriaren 31ra arte.

Diru-laguntza deialdia

Lehentasuna izango dute "herri gunean nahiz auzoetan gaur egun herritarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuekin lotura duten proiektuek. Xitera doazen edo itxi berriak diren jardueren jarraipenekoak diren proiektuek".

Gehienez ere lehenengo bi urteren alokairu gastuak diruz lagunduko dira:

- Lehenengo urtean alokairu gastuaren % 40a, gehienez ere 300 euro hilean.
- Bigarren urtean alokairu gastuaren % 30a, gehienez ere 200 euro hilean.

Kabien egonaldi bat egiteko beka deialdia

Urtebeteko egonaldia diruz ordainduko zaio Kabiene elkar-teak duen elkarlan-gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten. Bekadunek bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango dute eta harreman-sare indartuago batekin ekin ahal izango diote lanari. Beterri-ekinean

zerbitzutik tutorizazio bat emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkio, horrela badagokio.

- Eskaerak aurkeztea: irailaren 30era arte.
- Bekaren zenbatekoa: "gehieneko zenbatekoa 1.089,00 eurokoa izango da, beti ere 12 hilabetetako egonaldia izaten badu Kabienen".

- Onuradunen betebeharrak:
 - Adinez nagusia izatea.
 - Beterri-Buruntza eskualdeko udalerritakoren batean (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) errolatua egotea.
 - Usurbilgo Udalarekiko zerga-betebeharrak beteta edukitzea.
 - Usurbilgo Udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena garatzen ari izatea.

-Ekonomi Jardueraren gaineko Zergan alta emanda ez egotea edo gehienez ere 2017. urtean alta eman dutenak, eta norberaren kabuz ekonomia jarduera bat gauzatzen ez aritzea. Garatzen ari diren proiektuak baino ezingo dira aurkeztu, deialdiaren helburua ekintzaileen ekimen berriak definitzen eta abiarazten laguntzea baita.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Parti
Parti
bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatara
943 362725 · 688 690 361

Okindegia-Gozetegia
LABE-GOXO

Erraustegiaren finantziazioaren iruzurra salatu du GuraSOsek, Espainiako Senatuan

Madrilen, Espainiako Senatuan izan zen GuraSOS uztailearen 12an, erraustegiaren finantziazioaren iruzurra salatzen. Bisitak hainbat ordezkari politikoren arreta bereganatu zuen, eta nabarmentzeko moduko interesa piztu ere bai.

GuraSOS Senatura iritsi bezain laster, PSOE, ERC, EHBildu eta Unidos Podemos taldeetako ordezkariekin bildu zen. Erraustegiaren finantziazioaren iruzurra salatzen duen dosierra aurkeztu eta helarazi zien. Interes handiz, eta adi asko entzun zituzten, GuraSOSeko kide Joseba Belaustegiren azalpenak. Entzun bakarrik ez, esku artean zuten txostena aztertzeko konpromisoa hartu eta guraso taldearekin harremanetan segitzeko borondatea ere erakutsi zuten politikari guztiok.

Dosierra bera, PP eta Ciudadanoseko ordezkariak ere helarazi zien guraso taldeak. Unidos Podemoseko senatarietako batek gainera, GuraSOsek aurkezturiko dokumentazioa, goiz berean Senatuan bertan gastu



GuraSOS Senatura iritsi bezain laster, PSOE, ERC, EHBildu eta Unidos Podemos taldeetako ordezkariekin bildu zen.

GURASOS, SENATUAN

Unidos Podemoseko senatarietako batek Espainiako Gobernuako Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministro Cristobal Montorori pertsonalki eskura eman zion GuraSOSen dosierra

mugari buruz hitz egiteko agerraldia egitekoa zen Espainiako Gobernuako Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministro Cristobal Montorori ere pertsonalki eskura eman zion.

“Potenzialki arriskutsuak diren instalakuntzez ari gara” Goizean GuraSOsek ordezkari politikoekin eginiko bilera, haietako batzuekin, EHBildu eta Unidos Podemos alderdie-

tako kideekin batera, Senatuan bertan hedabideen aurrean eginiko agerraldiarekin borobildu zuten.

Pilar Garrido Unidos Podemoseko senatariak nabarmentzen zuenez, “garrantzizua da azpimarratzea ez dagoela ez planifikazio ezta koordinaziorik ere hondakinen kudeaketan”. Gaineratzen zuenez, “potenzialki arriskutsuak diren instalakuntzez ari gara”. Zubietako erraustegia gainera, gutxieneko adostasunik gabe eraikitzea erabaki dela salatu zuen, “gipuzkoarren parte hartzea aintzakotzat hartu gabe”.

Zubietako erraustegiak sinbolizatzen duen ereduarekin agerian utzi nahi izan zuen Garridok. “Administrazioek mekanismoak baliatzen dituzte defizita burlatzeko, eta modu horretan, betiko enpresa, banku eta enpresa eraikitzaileak onuradun suertatzen dira”. Aldiz, zorpetzearen ondorioak sufrutuko dituztenak, “murrizketekin eta kalitatezko zerbitzu publikoen gabeziarekin, gipuzkoarrak izango dira” ohartarazi zuen.

“1.000 milioi euroko iruzurra”

Agerraldi berean parte hartu zuen baita Jon Iñarritu EHBilduko senatariak. GuraSOSen planteamendu eta eskaera guztiak bat egiteaz gain, erraustegiaren aurka daudela azaldu zuen. Guztiz aurka, hainbat arrazoiengatik. Tartean, publikoa zen gai bat pribatizatuko delako. Mila milioi euroko zorra eta iruzurra Iñarrituk nabarmendu

zuen, eta horrek, “murrizketak eragingo dizkigu, besteren artean eremu sozialean. Zaharkitua dagoen eredu horren aurka gaude”. Hondakinak tratatzeko bestelako ereduak aldeko apustua egitearen alde agertzeaz gain, beharrezkoa ez den erraustegi baten aurrean gaudela ohartarazi zuen. Gogorarazi zuen, EAE-n jada badugula erraustegi bat, Bizkaian hain

zuzen, “beraz zentzugabeke-ria” da Zubietan eraiki nahi duten azpiegitura, EHBilduko senatariaren esanetan.

“Astakeria hau ez da gauzatuko” Erraustegiaren atzean dagoen guztia argitu beharra dagoela adierazi zuen hedabideen aurrean, baina neurri prebentiboak ere hartu behar direla, “astakeria hau ez gauzatuko”. Hondakinen kudeaketa-

ren gaia Gipuzkoan, gatazka politiko eta sozialean bihurtu dela jakinarazita, alderdi politikoei adostasunerako deia egin zien eta baita herritarren aldetik dagoen eskaerari erantzunez, herritarren parte hartzea bideratzeko eskaria egin ere. “Espero dezagun alderdi politiko eta herritarren aldetik, adostasun batera heldu ahal izatea, eta zentzua nagusitu dadila gai honetan”.

“Guraso bakar batek ere ez luke onartuko bere seme-alabak arriskuan jartzea”

Agerraldi berean, GuraSOSeko ordezkari Joseba Belaustegik ere hitza hartu zuen. Argi zioen hedabideen aurrean, zertara joan ziren Senatura. “Milioi askoko iruzurra argitara ematera etorri gara. Herritarrek ordaindu beharko duten iruzurra, beharrezkoa ez den azpiegitura batengatik”.

Erraustegien “patronalak” emandako beste datu interesgarri bat ere plazaratu zuen. Patronal honen arabera, estatu espainiarrak 17 erraustegi “beharko” lituzke. “Kalkulu hauen arabera, 0,79 erraustegi beharko lirateke EAE osoan (Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan). Bizkaiak jada badu erraustegi bat, beraz (Zubietakoa) ez da beharrezkoa, ez dago justifikatua bere beharregatik”, zioen Belaustegik.

Iruzurra ez ordaintzea lortu arte, “ez gara geratuko”

Eta gainera arriskutsua da. Taldea bera aurkezterakoan aurrean zituen hedabideei adierazi zien Belaustegik, “guraso bakar batek ere ez lukeela onartuko bere seme-alabak arriskuan jartzea, behar ez den eta arriskutsua den erraustegi bategatik”.

GuraSOS, laguntza beharrean

Sare sozialen bidez jakitera eman dutenez, “dirua behar dugu aurrera joateko”. Diru-laguntzarik jasotzen ez duen talde bati buruz ari gara, “taldeko partaideen poltsikoetatik dator, nagusiki, gure finantziazioa. Eta, nola ez, egin ditugun ekimenetan herritarrek egindako diru-ekarpenetatik”.

Hondakinen kudeaketaren arazoa konpontzeko bide-orraren baitan, erraustegiko lanak



GuraSOSek hedabideen aurrean iragarri zuenez, hurrengo hitzordua Bruselan izango dute, iraila amaieran.

JOSEBA BELAUSTEGI
“Erraustegien patronalaren arabera, estatu espainiarrak 17 erraustegi ‘beharko’ lituzke. Kalkulu hauen arabera, 0,79 erraustegi beharko lirateke EAE osoan. Bizkaiak jada badu erraustegi bat, beraz Zubietakoa ez da beharrezkoa”

Erraustegia eraikitzen hasi den enpresa taldeko kideetako batek, Urbaserrek, ustelkeria-

rekin izan duen lotura ere gogorazi zuen. Testuinguru honetan, herritarrek 1.000 milioi euroko iruzur hau ordaindu ez dezaten esperantzarekin hurbildu zirela Senatura zioen eta “hori lortu arte, guraso bezala ez gara geratuko”.

Hedabideen aurrean iragarri zuen, hurrengo hitzordua, iraila amaieran dutela Bruselan. Hara eramango dute erraustegiaren finantziazioaren iruzur salaketa. Bitartean, Senatuko taldeekin ere hartuemanetan segitzeko asmoa agertu zuen, iruzur hau desestaltzen segitzeko.

“Min(a)bizi”, erraustegiaren aurkako ereserki berria

Erraustegiaren aurkako borroka, ereserki berria du. Odolaren Mintzoak irailan kaleratuko duen lan berriaren baitan entzungai izango dugun abestietako bat; “Min(a)bizi”. Haren bideoklipa sareratu dute azken egunotan Youtuben. Luken Arkarazo, Jokin Irastorza, Beñat eta Joanes Txueka laukoteak Peru Galbete usurbildarraren laguntzaz herriko txoko ezberdinetan azken asteotan grabaturikoa.

Zubietan eta Urdaigagan

Bideoklip berria, Odolaren Mintzoak Facebooken duen orrialde berrian ikusgai duzue jada.

Zubietako eta Urdaigako jaietan arituko dira Odolaren Mintzoa taldekoak. Zubietan, uztailearen 30eko gaupasan eta Urdaigako festetako azken parranda gauean, abuztuaren 5ean.

kosta bikoitza eskatu zaigu Gipuzkoako tribunalena”.

Gastu hauei aurre egiteko laguntza eskatzen dute. Honatx diru ekarpenak egiteko GuraSOSen kontu zenbakia:

ES18 30350140391400030208

GuraSOS sarean

Twitter: @tgorasos

Facebook: facebook.com/gurasos/

http://www.gurasos.org

blogagurasos.wordpress.com

Horietakoa batean, gainera,

“Erraustegiak zorpetzearen eta gastu publikoaren Europako eta Espainiako arautegia ez du betetzen”

Ingurumenarentzat eta herritarren osasunerako ekar ditzakeen kalteez gain, Zubietan eraiki nahi duten erraustegiak gure poltsikoetan izango duen eraginaz ohartarazi izan digute urte luzez. Erraustegiaren proiektuak ahultasun finantzieroa duela, iruzur handi bat dela, hala ondorioztatu du GuraSOSeK, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ekonomia Finantzieroa eta Kontabilitateko Katedradun batek landu duen peritu-txostenari esker. Txosten hau, Tolosaldeko udalerriaren Mankomunitateak eskatu zuen eta datu eskandalagarri bat baino gehiago plazaratu du.

Ondorio nagusiak dossier batean bildu eta uztailearen 12an, Madrilgo Senatuan egin zuen bisitaren baitan hainbat ordezkari politikoari helarazi zioten. Ez zuten edozein egun Senatuan, Espainiako Gorteetan defizita eta zorpetzearen inguruko eztabaida betean baitira asteotan. GuraSOSeK berri eman duenez, “Senatuan salatu du erraustegiaren proiektuak zorpetzearen eta gastu publikoaren gaineko Europako zein Espainiako arautegia ez duela betetzen”.

Hasteko, erraustegiaren obra publikoaren kontzesiorako 1.000 milioi euroko kontratua,



Joseba Belaustegi eta Julene Albisu, GuraSOSeK txostenaren eskuetan dutela.

GURASOS

“Datuen arabera, Bizkaian dagoen erraustegiarekin nahikoa eta soberan dugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Zubietakoaren beharrik ez dago”

“iruzurra da kontratuen eta egonkortasun finantzieroa legediaren aurrean. Izan ere, kontzesionario pribatuak (Ekondakin)-Meridiam (%50), Urbaser (%46), LKS eta Murias, Moyua eta Altuna y Uria (%4a lauren artean biltzen dituen), ez du bere gain hartzen operazioaren arriskua. Justu kontrakoa: administrazioak bere akzionistei bermatzen die inbertsioa eta zergen ondorengo errentagarri-

tasun nominala, %10,50, hain zuzen ere. Horretarako guztirako, proiektuaren diru sarreraren %82,27 “Pago por disponibilidad” moduan jasoko ditu; hots, tarifa plana bat bezala, tratatzen diren hondakinak direna direla. Alegia, diru sarrera horiek jasoko dira hondakin tona bakar bat ere erretzen ez bada ere”.

Erraustegiaren beharrik ez

GuraSOSeK azpiegitura ez beharrezkotzat jotzen du erraustegia, “eta planifikazioa eta koordinazio falta ikusi ditu. Balorizazio energetikoaren (erraustegiak) sektorearen patronalaren arabera Espainia osoan 17 erraustegi beharko liriteke (gaur egun 11 daude), eta EAERI 0,79 edukitzea egokituko litzaioke, eta Bizkaian badago bat”.

Datuon arabera, Bizkaian dagoen erraustegiarekin nahikoa eta soberan dugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Zubietakoaren beharrik ez dago. GuraSOSeK esanetan, “horrek esplikatzen du zergatik ez den aztertu ea Zabalgarbi nahikoa ote den Erkidegoko beharrik asetzeko”. Horregatik ulertu beharrean gara GuraSOSetik diotenez, “EAE-k ez duela hiri hondakinaren planik, eta ez da betetzen ari bere egokitzapena estatuko planari, ezta Hondakin eta Lur Kutsatuen Estatu Legeari ere”.

Baina bada gehiago ere. Gipuzkoako Hiri Hondakinaren Kudeaketarako Planak 2016ko abenduan amaitu zuen bere indarraldia. “Foru Aldundiak ez du nahi izan ere ordezkaria izango dena tramitatu; eztabaida soziala eta parte hartzea sailhestu nahi duelako, batez ere (derrigorrezkoak direnak, legez). Gainera, GuraSOSeK salatu du erabateko kontrol falta dagoela milioi askoko kontratuaren. Kontrol ezak eta iruzurrak egiturazko hedadura hartu dute, eta GHK-k ez du horren gaineko kontrolik ezarri, eta Europako arautegiak sekulako garrantzia ematen dio horri guztiori (Europako Kontuen arautegia 2011/85/UE)”.

Ekimen berriak ate joka

Madrilgo Senatuan iragarri moduan, erraustegiaren finantziarioaren iruzur salaketa Europara helaraziko du GuraSOSeK iraila amaieran. “EUROSTATen (Europako Batzordea) aurrean kasu hau salatuko du eta agintarien eskuetan jarriko du bere eskuetan dagoen dokumentazio osoa. Europako instantziak tamainako iruzurrak ohartu-

ta, murrizketa sozialak eta lan erreformak ekarriko ditu. Horregatik guztiarengatik sindikatuei sindikatuen arteko ekintza bat proposatuko zaie, Europa mailakoa, horrelako iruzurrak saihesteko”, iragarri du guraso taldeak.

GuraSOSeK argi du erraustegi proiektua ezingo dela gauzatu. Erraustegia alboratu eta hondakinaren kudeake-

taren auziari herritarren parte hartzean oinarrituriko konponbide adostu bat emateko bi ekimen iragarri ditu 2017-18 ikasturterako. Ikerketa eta Garapena sustatuko duen Gipuzkoa Technology eta hondakin kudeaketari lotutako aurrekaririk gabeko parte hartze prozesua. “Berme Batzorde batek gidatuko du eta Gipuzkoa osorako di-

seinatutako prozesua egingo du EHUko ikerketa talde bategi. Adostasuna hiru norabideetan garatuko da: ahalik eta kohesio sozial gehiena, osasunerako berme gehien duen irtenbidea, eta Europako legedietara egokitzapena. Emaizta 2017-2030 bitarteko Hondakinaren Kudeaketa eta Prebentzioarako Plan baten proposamena izango da”.

“Europak izango du azken hitza”

“Oso pozik gaude, balantze oso positiboa egiten dugu”, zioen Julene Albisu GuraSOSeko ki-deak, uztailaren 12an Madrilgo Senatutik irten ostean. Erraustegiaren finantzazioaren iruzur salaketa Espainiako Gorteetara eraman zuen GuraSOSek duela astebete. “Oso harrera ona egin digute, kontaktuak ere egin ditugu. Oso pozik geratu gara, helarazitako salaketa mezuarekin, gure sentimendu eta emozioak helaraziz”, zioen guraso ere baden astigartarrak.



Senatari bat, GuraSOSen txostena irakurtzen.

Irailean, Bruselara

Eta adi, hemen ez baita amaitzen. “Hau lehenengo pausoa da. Iraila amaieran Europara joango gara”, iragarri dute GuraSOSetik. Erraustegiaren iruzurra azalerazi eta bide horretatik, konponbidearena irekitzea da guraso taldearen asmoa.

Erraustegiaren puntu ahula ukitu dutelakoan dira GuraSOSekoak, finantziarioarena alegia, “iruzur handi baten aurrean baikaude. Defizita eta zorren arazoari iruzurra egiten ari zaie eta hor gaude gu eta beste hainbat herritar, hori guztia salatzen”.

Iraila amaieran salaketa hau Europara eramango du Gura-

GURASOS

“Gaur horretara etorri gara, erraustegiaren proiektua iruzur finantziero handi bat dela salatzen. Eta hori mahai gainean jarriko dugu”

SOSek. Ziurtatu dutenez, gai honetan “Europak izango du azken hitza”. Bertan erabakiko da GuraSOSen esanetan, “arrazoia dugun eta hau guztia iruzur handi bat ote den”. Hala balitz, iruzur handi baten aurrean bagaude, “errauste-

gia egingo ez dela baieztatu den egunaren biharamunerako konponbidean pentsatu behar da”.

Eta konponbiderako elkarlan eta akordioan. Hondakinen kudeaketaren auzia, “denon artean konpondu behar dugu, baina ondo, modu onekin, eta legea, baina batez ere herritarren eskubideak errespetatuta”, diote GuraSOSetik.

Honenbestez, Senatuko bisita ziklo baten hasiera da, eta argi du GuraSOSek nola bukatuko den. “Erraustegirik gabe eta adostasunarekin, ziur gaude. Aupa denok, adostasuna jar dezagun Europarekin!”, adierazi zuten Senatu atarian.



“Erabili ezazue guztiona den bide hau eta bide batez salatu, egin protesta”

Erraustegirako gasa sartzeko lanen eremuan mobilizatu zen larunbat eguerdian herritar talde bat, Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldeak eta Zubieta Lantzenek deitutako elkarretaratzean. Erraustekaren aurkako eta birziklatzearen aurkako banderolak eskutan eta “Erraustekarik ez! Ez gure izenean” aldarripean eginiko mobilizazioan, une honetan lanetan den herri bidea erabiltzera deitu dute. Erabili eta erraustegiari aurkakotasuna adieraztera.

“Etengabe, jende andana pasatzea nahi dugu hemen. Libre ibili nahi dugu gure herrian. Hau ez dago konponduta. Arazo handi bat dauka Gipuzkoako erregimenak Zubietan. Erraustegiari lotu nahi gaituzte kate lodi batez 35 urterako, baina ez! Erraustegirik ez, ez Zubietan, ez inon!”, zioen larunbatean irakurritako manifestuak.



Erraustegia geldiarazteko oihalak eskuratzeko deia

Ondoko irudiko oihalezko banderolak leiho eta balkoietan jartzeko deia egin du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. 8 eurotan eskuira ditzakezue Alkartasuna Kooperatiban. Oihala zintzilikatzen duzuenean, argazkia atera eta sare sozialetara igotzera gonbidatzen gaituzte, #erraustegirikez traola baliatuta.

Hainbat zerbitzu desbideratuak

Erraustegirako gas hodiak sartzeko lanek, hainbat zerbitzuren desbideratzea eragin dute. Tartean, bus-taxiarena.

Bus-taxia

Lanok iraun artean ez da Ameritik igaroko. Etxetxotik aurrerako geltokietatik igaroko da. Gogoan izan bestalde, uztailaren 13:00eko zerbitzua izango duela eguneko azkena, arratsaldeetan ez da bus-taxirik izango, ezta hilaren 25

eta 31n, jai egunak baitira. Abuztuan ere zerbitzua etenda egongo da. Irailaren 1etik martxan izango da berriz ohiko ordutegiarekin. Informazio gehiago: 630 643 596.

Usurbil-Hernani autobus zerbitzua

TSST enpresak kudeatzen duen Usurbil-Hernani bus zerbitzuan ere eragin dute aipatu lanek.

Lanok iraun artean, ez da Zubietatik igaroko. Haren orde, zubietarrentzat bus zerbitzua jarri dute Lasarteko Euskotrenen pareko errontondako geltokiraino. Gelto-ki hartan, ohiko ordutegian hartu ahal izango da Hernani nahiz Usurbil aldera joateko autobus zerbitzu hau.

Informazio gehiagorako:

tsst.info

info@tsst.info

943 361 741

Eustakio Alkorta, Egioletako gizon zuhurra

Sendabelarretan jakituna, zaletua eta oso jantzia genuen Egioleta baserriko Eustakio Alkorta. Igeldo eta Usurbilekin muga egiten duen baserri horretan jaio zen gure Eustakio.

Sendabelarrak

- "Ierbi sagarra" granoak edo pikortak sendatzeko belarra zen bere esanetan. Zain zuri bat du mahatsa bezala, azala zuri-zuria izaten du eta igurtziz pikortak desagerrarazi egiten dira.

- Beste belarra "ebaki belarra" edota "Gernika belarra" zen; ebakia eginez gero, bertan ipini eta sendatzen zena.

- "Pulmoni belarra": uretan egosi eta gero, bere ura hartu eta biriketako mina kentzen zuen.

- Erreumaren aurkakoa baratxuria ikaragarri ona zela zioen gure Eustakio.

Ipuinak

Oso zalea eta era berean buru ona zuen ipuin zaharrak buruan gordetzeko. Honela



Igeldo eta Usurbilekin muga egiten duen baserri batean jaio zen Eustakio.

EUSTAKIO ALKORTA

**Ipuin zalea zen
eta era berean buru
ona zuen ipuin
zaharrak buruan
gordetzeko**

zioen ipuin batean: "Neskazahar bat omen zen eta gaixo jarri da eta ahizpa joan omen zitzaion bisita egitera eta:

-Zer egiten den hor?

-Hementxe neska; laster hilko naun eta gauza bat pentsatzen

natxion, lau mutil gaztek bizkarrean hartzen nautenean, barrerik egin gabe nola joan behar dudana."

Beste batean aldiz: "Txerria eta astoarena" ere bada. Txerriak astoari iseka egiten omen zion eta:

-Bai, bai, egon hadi pixka batean, afaririk ematen ez diaten hurrengo goizean zer egingo diaten!

Txerria hil eta astoa lanean

baina gaizki.

-"Burla" egingo zion lanean... Lanean zebilelako eta bestea etzanda, txerria, eta astoari "burla" egiten omen zion eta astoak esan omen zion:

- Bai, niri "burla" egingo diak baina afaririk ematen ez diaten hurrengo goizean ikusiko duk zer pasako zaakeen, ja ja!

"Neskazahar bat jarri omen zen ohean gaixo eta medikua behar zuela. Medikua ekarri omen zioten eta:

-Ez daukazu hiltzeko gaitzik eta horrelako grabadadeko gauzarik ez daukazu eta.

Gero hurrena apaiza behar zuela. Apaiza ekarri omen dute eta hark ere gauza bera. Apaiak esan omen zion:

-Zer gaitz aukeratuko zenuke zuk hiltzeko, pulmonia?

-Ez, hori ez.

-Eta minbizia?

-Hori gutxiago!

-Eta "erditzea"? Hori izan dadila zuk esaten duzun bezala!"

Iñaki Agirresarobe

Idi demetan "premioak jartze hori Bizkaitik etorri zen"

Lehenagoko idi dema desberdina zela zioen. "Batek bestea" "desafiatu" eta; gero premioak jartze... hori Bizkaitik etorri zen eta idia pisatu eta jartzen dute neurri bat, konparazio batera 1500 kilo idiak eta handik aurrera daukanak, karga handik aurrera baldin badauka, kiloko kilo eta erdi hartu behar du kargak, oraindik horrela jokatzen dira gauzak".

Garai batean ordubeteko saioak ere ezagutu omen zituen. Ikaragarriko lanak zirela zioen.

"Usurbilen ere aurreneko plazak "12 zinta" zituen eta handik aurrera "11" izaten zen, izkinatik hasi eta gero hura bukatu egiten da eta hara ez daukate idiek sartzerik eta... aurreneko plazak "12 zinta" eta

bigarrenak "11" eta herri guztietan ohiturak ezberdinak izaten dira, gainontzean zenbat plaza hainbeste zera izaten dira. Zinta bakoitzak 2 metro zituen. Neurri finkoa ez zen izaten. Usurbilen beti "salida" frontoi aldetik izaten da".

"Gutxi gora-behera "tipoa" etxean ikusten da lanerako bali duen edo ez / den. Ez dakit plazako idia gutxi tokatzen da ona, oso gutxi. Niri askotan gutxi tokatzen zait plazarako idi ona, hori lan gogorra izaten da eta; baserrirako idia ere oso ona izaten da, lan pixkat egiteko baina plazan fin heldu behar zaio eta "aguantatu" egin behar da han eta askotan burua altxa edo eta hori eginez gero akabola".

Jada hezi ere ez da egiten... lan asko egin behar du idiak, plazan lana egingo baldin badu, baserrian lan asko egin behar du. Egunero lotu behar du idia eta bere zeran patxara ederrean, goldea ederra zen denbora batean idia hazteko, eta orain goldea eta horiek makinarekin egiten dira".

Igeldon apustu ospetsuak izan ziren Udarregiren bertsotan asko azaltzen baitzen. Esate baterako behi pareta asto demaren aurka.

"Gero ere Igeldoko plaza egin zenean, jokatu ziren sei idi pareta behi pareta, zazpi, fin asko. Milana pezeta saria (premioa) eta aurrenekoak eta azkeneoak "igual" zuten eta hantxe

zeinek aurrea egin eta gero hor ere jendea trastetu zen, batek tranpa egin eta besteak ere bai eta segil!".

"Behi pariaren kontra Bost ziran astuak Karrietan eztira hoyek genero bastuak Tiraka ezin egin istillu gaiztuak jendiak egin ditu algarra gozuak"

"Idi deman Usurbilen itzain famosoak izan dira: horien artean "Txantre" pasaitarra, "Monea" eta "Txapelgorria". Usurbilgo harri handiarekin karga gainean hartua jokatua izan zen, kintal bat gainean zuela, 1965. urte inguruan gutxi gora behera".



SANTIOAK
2017

gehigarri berezia



Laguntza premian da Jai Batzordea

Jaien antolakuntzan “esku bat botatzeko prest egongo bazinate, zinez eskertuko genuke zuen prestutasuna”, adierazi dute Jai Batzordetik. Antolatzaileekin hartuenametan jarri besterik ez duzue zuen laguntza eskaintzeko. Bada ordea, festak babesteko beste bide bat ere, antolakuntza gastuei aurre egitea esaterako. Ostegun honetan, uztaileen 20an iluntze aldera etxez etxe ibiliko da Jai Batzordea laguntza biltzen. Une horretan bere ekarpena egin ezin duenak, “eskertuko genizueke jaietan zehar txosnan egongo den kaxara botako bazenute”.



Uztaileen 24an arratsaldeko 18:00etan jaurtiko dute txupinazoa. Mozorrotuta agertzeko deia egin dute. Argazkia: Lurdes Hueta.

Mozorrotuta eta zapi morearekin hasi...

Santio Egunaren bezperan, uztaileen 24an 18:00etan jaurtiko duten txupinazoak murgilduko du Zubietan astebeteko jai giroan. “Ekintza anitz, parte hartzaile eta ezberdinez beteriko” jaien hasierara “mozorrotuta gerturatzeraz animatzen zaituztegu, jaietako zapi morearekin. Aspaldian entzun ez genituen txalaparta doinuak berreskuratu, eta jaiak aldarde ederrean igaro ditzagun, topa egingo dugu guztioan artean!”, iragarri dute Jai Batzordetik.

...eta erraustegiaren aurkako aldarriarekin amaitu

Aldarrikapenek ere bere tartea izan ohi dute jaietan. Zubietakoak aurreko erraustegiaren aurkako aldarriarekin amaituko direla iragarri dute Jai Batzordetik. “Gure lurretan egiten ari zaizkigun txikizioa salatzekeo parada ere izango dugu aurtengo festetan”.

Txartelak salgai

Adi Zubietako jaietan antolatu diren otorduak txartelen

salmentari. “Salmenta egunak errespetatu”, eskatu dute Jai Batzordetik. Epez kanpo txartel gutxi batzuk salgai izan daitezke baina prezio garestiagoan, ohartarazi dutenez. Garaiz eskuratu beraz. Uztaileen 24ko herri afarikoak Almandegin eskuratu daitezke hilaren 20ra arte; helduenak 25 eurotan, haurrenak 12 eurotan. Zikero janekoak uztaileen 23ra arte; helduenak 22 eurotan, haurrenak 12 eurotan. Barazar jatetxean ospatuko den jubilatuen bazkaritarako aldiz aurrez deitu beharko da, uztaileen 26a baino lehen, 634 879 307 telefono zenbakira (Aranztazu).

Otordu gehiagori lotutako oharra. Uztaileen 29ko kuadrila arteko paella janerako, “Jai Batzordeak suak, arroza, gazta eta olio jarriko ditu. Gainerako osagaiak eta tresneria (paellera barne) kuadrila bakoitzaren esku geldituko dira. Eskertuko genuke bertaratzeko asmoa izanez gero, Jai Batzordeari abisua ematea”.

Mus txapelketa, uztaileen 30ean

Gaupasa egunez antolatu dute, uztaileen 30ean.

15:30ean zabalduko dute izen ematea. 20 euro ordainduta bideratu ahalko da inskripzioa. Lehia ordu erdi beranduago abiatuko da. Bikote trebeenek sariok irabazi ahalko dituzte:

- 1.- Arkume bat, marisko lotea eta bi txanpain botila.
- 2.- Txerrikume bat, bi txanpuru eta bi ardo botila.
- 3.- Bi txuleta eta bi sagardo botila.
- 4.- Gazta bat eta bi sagardo botila.

Sagardo dastaketa

Uztaileen 29an eguerdiko 12:00etatik aurrera ospatuko den hitzorduan, sagardotegiok parte hartuko dute: Aialde Berri (Usurbil), Alorrenea (Astigarraga), Araeta (Zubietan), Arratzain (Usurbil), Iruin (Zubietan), Izeta (Aia), Kalonge (Igeldo), Saizar (Usurbil), Sataxota (Aia), Urdaira (Usurbil) eta Zabala (Aduna). Gogoan izan; 13:00ak aldera banatuko dituzte, I. Puntu Txapelketako sariak.

Zubietan, Gipuzkoako txapelkun



Errebote txapelketako Gipuzkoako txapelkunak ditugu zubietarrak, uztaileen 16an Oartzunen Txost taldekoen aurka jokatu zuten finala 13-7 irabazi ostean. Zorionak!

Ea puntuka zein den trebeena

Gustukoa al duzu zuk bertsolaritza? edota Nola ikusten duzu zuk gaur Zubieta? puntuetako bati edo bie i eta nahi beste aldiz erantzun paper mutur batean. Paper zati horren atzealdean izen abizenak eta telefono zenbakia idatzi eta Alamandegin, Barazarren eta jaietako txosnan egongo diren bertso-kutxen barruan utzi.

Hiru sari nagusi

Sari banaketa uztailearen 29ko sagardo dastaketaren baitan egingo da, eguerdiko 13:00ak aldera. Sariak, hauexek:
1-Txapela eta sari berezia.
2-Bizitza aldatzeko aukera eta sari berezia.
3-Aratz jatetxean bazkaltzeko aukera eta sari berezia.

Bezperan, bertso saioa

Uztailearen 29an emango dira



Beñat Gaztelumendi, 2015eko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi berritan. Uztailearen 29an Zubietan arituko da kantuan, Ane Labaka, Iker Zubeldia eta Aitor Mendiluzerekin batera. Argazkia: Kronika.

puntu txapelketako irabazleen izenak ezagutzera. Bertso saioa, aldiz, bezperan egingo

da, Uztailearen 28an gaueko 22:00etan.

■ 22:00 Bertsolariak: Ane La-

baka, Beñat Gaztelumendi, Iker Zubeldia, Aitor Mendiluze.

■ Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

bugati
ERRETEGIA

OILASKOAK IKATZ-BRASAN ERRETEGIA
eta UMEENTZAKO JOLASTOKIA

Arrapide Pasalekua, 74
20160 Zubieta (Donostia)

☎ 943 37 76 62 📍 Bugati Erreteria

Ondo pasa SANTIOETAN!

TABERNA · PINTXOAK · RAZIOAK · BOKATAK
· HANBURGESAK · JATETXEA · MENUAK
· KARTA · AFARI MUSIKALAK
· OSPAKIZUNAK · EZKONTZAK · BATAIOAK

Äraeta
sagaruategia

UDA GUZTIKO OSTEGUNETAN
PINTXO&MUSIC 1,5€
MUSIKA ZUZENEAN ETA KOKTELEROA

Berridi Bidea 22, ZUBIETA 943 362 049



Irvin Sagardotegia

ONDO PASA SANTIOAK!!

Petritza bidea 12, Zubieta 943.361.229



www.lizarraldeortopedia.eus

Bizi kalitatea hobetuz

Lizarralde ORTOPEDIA


ALOKAIRUAN:
Scooter-ak, gurpildun aulkiak, ohe artikulatuak, taka-takak, garabiak...

- Esaileria igogailuen instalazioa
- Komun eta etxebizitzaren egokitzapena
- Diru-laguntzen aholkularitza-tramitazioan laguntza
- Produktu ortopedikoen salmenta eta aholkularitza
- Zapata eta ortesi gama zabala
- Teknikari ortopeda kontsulta
- Arreta pertsonal eta espezializatua
- Online eta telefono bidezko aholkularitza
- Salmenta ondorengo zerbitzua
- Etxera banaketa

Ondo pasa Santioetan!

Astelehenetik ostiralera: 09:15-13:30 / 16:30 / 19:30
Larunbata: 09:30-13:00


Tel: 943 543 585 Mugikorra: 688 678 583
Kazkazuri plaza 1 - behea 20180 Oiartzun



BARAZAR OSTATU-JATETXEA

LOGELAK KOMUNAREKIN
AFARIAK EGUNERO
BAZKARIAK IGANDE ETA
JAIEGUNETAN

943 36 33 58 ARBITZA BIDEA, ZUBIETA



ALAMANDEGI JATETXEA

- Astean zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia, familia guztiarentzat aproposa!

Ondo pasa Santioetan!

Tel. 943 36 28 49 egin zure erreserba!
Urbitearte kalea 1, 20160 Zubieta

Jai giroan, astebetez

Uztailak 24, Astelehena: Mozorro Eguna

■ 18:00 Jaien hasiera, txupinazo eta Zubietarron IV. Argazki herrikoi erraldoiarekin, txalparta doinuez alaituta.

■ Segidan Txosnen irekiera eta "fotokola".

■ 21:00 Herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik.

■ 00:00 Egan.

■ 02:00 Joxe Replay.

Uztailak 25, Asteartea: Santio Eguna

■ 09:00 Esnadeia Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.

■ 10:30 Meza Nagusia. Ondoren hamaiketakoa eta soka dantza.

■ 18:00 Emakumeen pala partida, Errebote Plazan: Perurena - Arrillaga San Sebastian - Erasun.

■ Jarraian buruhandiak.

■ 19:00 Patxi Ta Konpania.

Uztailak 26, Asteazkena: Oilasko Biltzaile Eguna

■ 06:00 Oilasko biltzaileen irteera, trikitixa doinuekin alaituta.

■ 14:30 Oilasko biltzaileen iritsiera.

Uztailak 28, Ostirala: Umeen Eguna

■ 10:00 Jolasen hasiera.

■ 13:30 Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala, eta postrea eta sorpresa antolatzaileen esku.

■ 16:00 Twister erraldoia.

■ 17:00 Txokolatada eta buruhandiak.

■ 18:30 Apar festa.

■ 19:30 Sardin eta piper jatea.

■ 22:00 Bertsolariak: Ane Labaka, Beñat Gaztelumendi, Iker Zubeldia, Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

Uztailak 29, Larunbata: Jubilatuen Eguna

■ 09:30 Meza.

■ 12:00 Sagardo dastaketa eta



Uztailaren 26an ospatuko dute oilasko biltzaileen eguna. Argazkia 2016koa da. Egilea: Lurdes Hueta.



Uztailaren 31n, jaietako azken egunean egingo da zikiro jana. Argazkia iazkoa da. Egilea: Lurdes Hueta.

pintxoak Errebote Plazan.

■ 14:00 Jubilatuen bazkaria, Barazar Jatetxean.

■ 14:00 Paella prestaketaren hasiera.

■ 15:00 Paella jatea.

■ 18:00 Burrumba Elektrotxaranga.

■ 23:30 Zaparra taldearen kontzertua. Ondoren Laiotz.

Uztailak 30, Igandea: Gaupasa Eguna

■ 16:00 Mus txapelketa

(15:30ean izen ematea).

■ 16:30 Gaztetxoan antzerkia Kaxkapen.

■ 17:30 Toka txapelketa.

■ 00:00 Kontzertuak: Odolaren Mintzoa eta Gozategi. DJ Arosekin goizaldera arte.

Uztailak 31, Astelehena: San Inazio Eguna

■ 09:00 Zikiro prestaketaren hasiera.

■ 10:30 Meza.

■ 11:30 Zubietarren arteko

errebote partida.

■ 14:00 Zikiro jatea.

■ 18:00 Herriko gaztetxoaren eskutik Joko Garbi erakustaldia Errebote Plazan.

■ 19:00 Emakumezkoen erakustaldia Herri Kiroletan: Aizkolariak: Astondoa (Zeanuri) eta Etxaburua (Zizurkil). Harri-jasotzailea: Etxeberria (Orio). Ondoren buruhandiak.

■ 00:00tan Herriko jaien amaiera traka eta suziriek. Amaitzeko, musika txosnan.



Klik! batean

Klik, klik, klik...

“Horrela pasa dut azken urtea, Usurbil eta usurbildarrak erretratatzeko. Esperientzia eta erronka ederra izan da, bai horixe! Eskerrik asko guztioi!”.

Argazkia eta testua: Ion Markel



San Esteban egunean hasiko dira Urdaiaga auzoko jaiak

Abuztuaren 3an, ostegunarekin abiatuko dira Urdaiagako festak. Egun handian, alegia. Txupinazoa bota eta meza nagusiaren ondoren, herriko dantzarien saioa hasiko da. Orbeldi Dantza Taldearen ikuskizuna amaitu berritan, ardoa eta paxientxiak banatuko dituzte.

San Esteban eguna

Abuztuak 3 osteguna

- 10:00etan Txupinazoa.
- 11:00etan meza nagusia.
- Meza amaitzean, herriko dantzariak eta ondoren, ardo eta paxientxi banaketa.
- 18:00 Hirugihar banaketa, Julen Alonso eta Eneritz Aulestia trikitilariak girotua.



Iaz jende ugari bertaratu zen. Ea aurten ere eguraldiak laguntzen duen.



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

943 36 46 00
www.lhusurbil.eus

Jai zorientsuak opa dizkizue!!!



42 urte pertsonak hezten

Erdi eta goi mailako
zikloak A, B eta D Ereduak

- Administrazioa
- Elektrizitate-elektronika
- Fabrikazio mekanikoa
- Ura eta energia
- Produkzio zerbitzu eta manten.

Etarte bidea 9, Zubieta

eskola@lhusurbil.eus



Jai egitaraua

Abuztuak 3, osteguna

- 10:00 Txupinazoa.
- 11:00 Meza nagusia.
- Meza amaitzean, herriko dantzariak eta ondoren, ardo eta paxientxi banaketa.
- 18:00 Hirugihar banaketa, Julen Alonso eta Eneritz Aulestia trikitilariak girotua.

Abuztuak 4, ostirala

- 14:00 Herri bazkaria. Txartelak salgai izango dira Aitzagan, Txirristran, Artzabalen eta Santueneko Gure Elkartea jubilatuen egoitzan.
- 18:00 Helduen jolasak.
- Ondoren, buruhandiak.
- 21:00 Herri afaria.
- 23:00 Bertsolariak: Iker Zubeldia, Ane Labaka eta Unai Mendizabal. Gai jartzailea: Amaia Agirre.
- Gauean, Gabenara erromeria.



Abuztuaren 3an, meza eta gero hasiko da Orbeli Dantza Taldearen erakustaldia.

Abuztuak 5, larunbata

- 10:30 Umeen jolasak eta pintura lehiaketa.
- Ondoren, buruhandiak.
- 13:00 Umeen bazkaria: norberak ekarri eta bertan edaria eta postrea banatuko da.

- 15:30-16:00 Izen ematea mus txapelketan.
- 16:00 Mus txapelketa.
- 17:00 Umeentzako eskulan tailerrak.
- 18:30 Txokolatada eta buruhandiak.
- 21:00 Musikarien afaria. Gauean: Odolaren Mintzoa eta Eromeria.
- Antolatzailea: San Estebango Jai Batzordea.

ONDO PASA SAN ESTEBANETANI!

URTINEA

Jantzi kolorez zure etxe, balkoi zein lorategia!

Era guztietako aukerak oparitzeko: garaiko loreak, frutarbolak, loreontziak, lore-sortak...

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

SANATORIO de USURBIL

USURBIL g o SENDATEGIA

San Esteban, 48. Tel: 943 36 11 24 Fax: 943 36 28 98
info@sanatoriodeusurbil.com www.sanatoriodeusurbil.com

Ondo igaro festak!

O.P.R 92/16

bai euskaraz zerbitzua euskaraz

CERTIFIED IQNet

AENOR AENOR



Kentuene

JATETXEA

Sagaltxipi baserria, 23
20170 Usurbil · Gipuzkoa
Tlf: 943 361 127 · Fax: 943 373 317
www.kentuene.com

Ondo pasa Sanestebanak!

Abuztuaren amaieran, jaiak Atxegalden

Abuztuak 25, ostirala

- Eguerdian, batzordearen bazkaria.
- Ondoren, kalejira herrian zehar eta Atxegaldeko auzoan.
- 20:00 Txupinazoa eta luntx mundiala.
- Gauean: Izeberg (Herriko taldea), Liher eta Gabenara (Erromeria).

Abuztuak 26, larunbata

- 11:00 Umeentzako jolasak, eskulanak, zozketak, goxokiak...
- 14:30 Herri bazkaria (norberak etxetik ekarritakoa, edaria eta postrea batzordearen kontu).
- 15:30-16:00 Museko izen ematea.
- 16:00 Mus Txapelketa.
- 18:00 Antzerkia, magoa, ikuskizuna... (zehazteke).
- 21:00 Herri afaria.
- Gauean, Erromeria eta DJ.



Abuztuaren 25ean, iluntzeko 20:00etan botako dute txupinazoa. Argazkia, artxibokoa.

Abuztuak 27, igandea

- 11:30 Toka Txapelketa.
- Jarraian, haragi, txorizo eta salda banaketa.
- 17:00 Mastertxeff; sukaldari Antolatzailea: Atxegaldeko Jai Batzordea.
- 18:30 Bertso musikatuak. Oharra: behin behineko egitaraua. Aldaketak izan ditzake.
- 21:30 Azken traka.

Haur Eskolako hezitzaileei, esker onez

Eta berria abiatuko dute 3 urteko haurrek irailean; Haur Hezkuntza, Udarregi Ikastolako Agerialde eraikinean. Aurretik, Haur Eskolan bizi izandako zikloa behar bezala borobildu nahi izan dute. 3 urteko haurren gurasoek hezitzaileei esker ona adierazi nahi diete, "despedida" bazkarian eskaini zitzaizen ondoko bertsoarekin. Ostiral honetan ospatuko duten jaialdiarekin agurtuko dute 2016-17 ikasturtea. Haur Eskolako 3 urteko haurren gurasoak

Haurreskolako bidea Amaitu zaigu tamalez Ta bizitako guztia Nola adierazi hitzez Lehen irri eta pausoak Irribarrez eta negarrez Kalejarren irteerak ardiei ogia emanez Zenbat esperientzi berri, Gela bete da hondarrez! Hainbeste ikasi dugu Zuek alboan egonez Eskeinitako altxorra Gure barrenean gordez Besterik ezin da esan Eskerrik asko bihotzez!



Ostiral honetan ospatuko duten jaialdiarekin agurtuko dute ikasturtea.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zuhiaurrenea 5


ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ETXETRESNEN 
KONPONKETAK
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA
 645417665
XABIER
Usurbil



ANORGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!

beirazko itxitura
seeglass one
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Adi udako ordutegiei

Hainbat zerbitzuz urte garai honetara egokitu dute ordutegia, udako hilabete hauetan. Adi aldaketa hauei:

Oiardo Kiroldedia

Udako ordutegia abuztuaren 31ra arte. Lanegunetako ordutegia: 07:00-13:00/17:00-20:15. Larunbatetan: 09:00-13:00. Igande eta jai egunetan: 09:00-13:00. Abuztuaren 1etik 27ra itxita.

Garbigunea

Udako ordutegia irailaren 15era arte: astelehenetik ostiralera, 10:15-14:00. Larunbatetan, 09:00-13:30.

Sutegi udal liburutegia

Uda osoan, astelehenetik ostiralera 09:30-14:00 artean zabalik. Uztaileko astelehenetan, baita 17:00-19:00 artean ere.

KzGunea

Uztailean goizez zabalik, 09:00-13:00 artean. Abuztuaren 1etik irailaren 15era aurrera, 16:00-20:00 artean zabalik.



Udako ordutegiak irailaren 15era arte iraungo du Garbigunean: astelehenetik ostiralera, 10:15-14:00. Larunbatetan, 09:00-13:30.

Bus taxia

Uztailean goizez, astelehenetik ostiralera 07:30-08:30, 10:30-11:30 eta 13:00-14:00 artean eskainiko da zerbitzua. Arratsaldean, 15:30-16:30 eta 19:00-20:00 artean ez da zerbitzurik izango. Ezta uztailearen 25ean eta 31n. Abuztuaren 1etik irailaren 15era aurrera, ohiko ordutegiarekin berriz, bus taxi zerbitzua martxan.

Euskotren

Udako ordutegia indarrean da. Aldaketa esanguratsua:

larunbat, igande eta jai egunetako arratsaldeetan, trenak ordu erdira izango direla Zumai-Donostia artean. Informazio gehiago: euskotren.eus/944 333 333 / @euskotrenejg

Lurraldebus

Aldaketarik ez. Informazio gehiago: lurraldebus.eus / 900 300 340

TSST bus zerbitzua

Aldaketarik ez Usurbil-Hernani zerbitzuan. Informazio gehiago: tsst.info/943 361 740

Zumarten, irailaren 7an hasiko da ikasturtea

Udarregi Ikastolak bezala, irailaren 7an abiatuko du ikasturte berria Zumarte Musika Eskolak. Baina go-goan izan, Villa Pilarren handitze eta berritze lanak tarteko, behin behineko beste guneotan bilduko dira musikariak datozen bi urteotan; Udarregi Ikastolan eta Santueneko frontoi atzeko lokalean. Musika Eskolako bulegoa berriz, garai bateko Puntapax kaleko Atez Ateko Informazio bulegoan kokatuko da.

Katekesian izena emateko egunak: irailak 12 eta 13

Usurbilgo Salvatore Parrokiako katekesi taldeetan izena emateko egunak hauek izango dira:

Irailaren 12an eta 13an, arratsaldeko 18:00etatik 19:30era Parrokiako bulegoetan. Gurasoak bertaratzeari komeniko litzateke.

Hurrengo NOAUA!, irailaren 8an

Opor aurreko azken astekaria duzue honakoa. Hurrengo, 709. zenbakiduna, irailaren 8an argitaratuko dugu. Ordurako ohar edo zorian agurrik baldin

baduzue, irailaren 4a baino lehen ekarri NOAUA!ko egoitzara. Bideotatik helarazi bezala: erredakzioa@noaua.eus / 943 360 321

Kutxa Kultur Jaialdia hipodromoan egingo da

Orain arte Igeldon ospatu den jaialdia, Zubietako hipodromoan egingo da aurten. Irailaren 15ean eta 16an, hain zuzen. Kutxa Kultur Festibalerako sa-

rreak salgai daude. Egitarauaren berri izateko, informazio gehiago jasotzeko edota sarreak erosteko, hauxe web orria: donostiakutxakulturfestibala.com

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Nartxi Arrillaga, Zubietako alkate berria:

“Herri Batzarra indartzea da geure helburua”

Donostia aldeko hautagai bozkatuena izan zen 2015eko udal hauteskundeetan. Uztailearen 9az geroztik, Zubietako alkate 2019ra arte. Nartxi Arrillagak ordea argi dio, Zubietako Herri Batzarrean alkatearen irudia baino batzarkideen arteko auzolana dela gailentzen dena. Erakundea indartzea du datozen bi urteotarako erronka nagusia.

Batzarkide izatetik alkate izatera igaro zara. Zertan aldaturiko da zure papera Herri Batzar barruan?

Nartxi Arrillaga: Ez dut uste askorik aldatuko denik. Kanpotik ematen du alkatearen figura hori badagoela baina azkenean 6 lagun gara elkartzeko garenak. Herri Batzarrean auzolanean aritzen gara. Gure artean ez dago alkatearen figura, talde bat gara.

Uztailearen 9an hartu zenuen alkate kargua. Ze posizio zailen zaudeten agerian geratu zen beste behin.

Ekitaldi hartan gehien eskertu nuena zen, denek onartu zutela Herri Batzarrean aritzeak zer zailtasuna duen. Zubietak beste trataera bat behar zuela



Batzarkideen arteko auzolana nabarmendu nahi du Nartxi Arrillagak.

NARTXI ARRILLAGA

“Kanpotik ematen du alkatearen figura hori badagoela baina azkenean 6 lagun gara elkartzeko garenak. Herri Batzarrean auzolanean aritzen gara. Gure artean ez dago alkatearen figura, talde bat gara”

ere bai. Hari horri helduz esan nien, oraindik Herri Batzarri

bere nortasuna eman eta indartzen saiatzea merezi duela, bi udaletxeen aurrean. Askotan, kanpotik Herri Batzarra ahalmen handia duen erakundea dela dirudi. Baina bi urte pasa ditugu gauza xume batzuk lortzeko borrokan.

Erronka bota zenien bi alkateei. Biltzea, baldintza bakar batekin; eseri eta hitz egitea, erabakiak hartzeko.

Erronka bota nien bi alkateei eta Zubietako Herri Batzar osoari. Agendarik gabe eta era-

bakiak hartzeko. Zer gertatzen da askotan? Bileretan esandako hitzak hor geratzen dira eta ekintzak ez dira heltzen. Horregatik esaten nien hitz egin bai, baina erabakiak hartzeko. Ez dakit onartuko duten erronka hori baina nik gustura hartuko nituzke.

Bi urte dituzue aurretik. Ze erronka dituzue legegintzaldi zati honetarako?

1996-97 bueltan egin zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua dago, Zubietako Herri Batzarrek zer ahalmen zituen Donostia eta Usurbilgo udaletxeen aldetik. Hori ardatz hartuta, hori moldatu, lantzea, Zubietako Herri Batzarra indartzea da neure helburua eta Herri Batzarrek kudeatzeko ahalmena behar duela onartzea.

Goialdeko mugimenduekin nahiko borroka izango duzue.

Egunero dugu buruan eta horrekin ari gara. Batetik, denek ikusten dugun erraustegia dago, bestetik egin nahi duguten milioi bat metro karratuko industriagunea. Zubietari zer onura ekarriko dio horrek? Horiek denak ere kontuan hartzekoak badira.

“Uste dut herri izaera egiten, eskolatik hasten dela”

NOAUA! Zubieta bi udalerrietan banatua egon ordez udalerrri izan balitz, bestelako hiri planteamendu bat egongo zen ziurrenik.

Nartxi Arrillaga: Pentsa, Zubietaren eremua herri bat balitz bezala hartuz gero, Zubietan 400 bat biztanle izango gara. Hiru gasolindegitu, industriaguneak... Edota eskola. Borrokan aritu gara

Zubietako eskolan 12 urtera arte ikasi ahal izateko aukera eskaintzeko. Argi diogu, eskolan ibiltzen diren lekua herria egiteko era bat da. Nongo eskolan ibiltzen diren, azkenean sustraiak pixkanaka han geratzen joaten dira.

Lortu berri duzue 12 urtera arteko hezkuntza eskaintza izatea Zubietan?

Aspalditik izan dugu borroka Delegaritzarekin. Zubietan bere garaian 12 urtera arteko hezkuntza eskaintzea izatea lortu nahi zen. Lehen ere izan genuen saiakera handi bat eta ez genuen lortu. Orain berriz lortu da.

Oso albiste ona, ez bakarrik eskolari begira, herri egite horri begira ere albiste poz-

garia noski?

Oso ona bai. Gehienbat herri izaeraren ikuspegitik. Nik uste herri izaera egiten, eskolatik hasten dela. Umeak 6 edo 8 urterekin ateratzen badira eskolatik edo 12 urterekin ateratzen badira alde handia dago, azkenean sustraiak sendoagoak dira 12 urterekin irtenda, zortzirekin baino.

“Zubieta batere errespeturik gabe erabiltzen dute”

NOAUA! Kargu hartzean, ozen adierazi nahi izan zenuen Zubieta oso errespetu gutxiarekin tratatua izan dela. Bizi duzuen errealitateko azken atala, herri bidearekin gertaturikoa.

Nartxi Arrillaga: Niri esango didate obra bat hasi behar dutela eta pertsona batek bere etxera sartzeko aukerarik ez duela? Garbi esan nien alkate aldaketa ekitaldian. Zeinek ikusiko du ondo bere aziendari errespeturik ez dion abeltzaina? Alkate batekin berdin. Baserri guztietan izaten da lur puska bat, bistan geratzen ez dena, estropeatzen zaigun makinaria guztia eta txatarra pilatzen joaten garena. Zubieta hori da Donostiarentzat. Ikusi besterik ez dago, berak bistan nahi ez dituenak, bai erraustegia, bai kartzela... bere etxe atzeko sail horretan sartzen ari da. Horretarako Zubieta oso tresna polita da Donostiarentzako. Zubieta batere errespeturik gabe erabiltzen dute.

Erraustegia, industriagunea, makroartzela eraiki nahi duten eremutik gertuen bizi zaren bizilaguna izango zara. Nola eragin dizue lanok?

Hara bizitzera joan nintzen duela 14 urte. Orain denentzako enbarazuan nago. Alde batetik kartzela eta industriagunea, eta beste alderditik erraustegiarentzako egiten ari direna. Kartzela eraikitzen doazen eremuan, 30 bat behor ibiltzen ziren mendi horretan. Kendu behar izan nituen obrak hasi zirenean. Erraustegiko obrak hasi zirenean Andatzara joateko bidea moztu zuten. Eta gaur egun oraindik, Andatzara joateko bide bat egiteko eskatu eta eskatu ari gara. Bidea moztuta dago. Bide moduko bat egin dugu, baina ia bi urte pasa ditut neure azienda Andatzan egonik, Puelatik barrena berriz Zubietaraino jaitsi eta Puelatik barrena igotzen, azienda



“Baikorra naiz, ez dut uste erraustegia bukatuta ikusiko dugunik. Geroz eta jende gehiago dago kontzientziatua eta erraustegia zentzugabeko gauza bat dela ikusten duena”.

NARTXI ARRILLAGA

“Baserri guztietan izaten da lur puska bat, bistan geratzen ez dena, estropeatzen zaigun makinaria guztia eta txatarra pilatzen joaten garena. Zubieta hori da Donostiarentzat”

hortik pasatzerik ez nuelako. Batere sentsibilitaterik gabe egiten diren gauzak dira. Joaten zaren lekura ikusi behar da gutxienez zer dagoen, zein diren kaltetuak eta kalte horiek ahalik eta gehien nola saihestu. Han goian oraindik bide asko moztuta daude, eta ez dakit berreskuratuko diren. Hasieran alde handia izan zen, Usurbil eta Donostia artean. Usurbilek ahalik eta bide gehienak publiko bezala izendatu zituen. Donostiak berriz, mendi bide gehienak pribatu gisa izendatuak ditu. Pribatuak direlako, espropiazio garaian bi pezeta ordaintzen ditu eta mozteko aukera du. Publiko balira, be-

rreskuratu edo zaindu beharrak lituzke. Bide mordoxka bat moztuak daude hor. Gaur zubietar asko egongo dira, beren sailera joateko biderik ez dutenak. Gaur bideak eteten badira, bihar baso horiek ez dago kudeatzerik. Edo gertatu den moduan Zubietan. Txirringululari batek istripua izan, eta beregana iristerik ez. Behin, helikopteroz atera behar izan zuten Donostiako eremuan, Zubietatik biderik ez zegoelako.

Erraustegia eraikiko dela uste duzu?

Baikorra naiz, ez dut uste erraustegia bukatuta ikusiko dugunik. Geroz eta jende gehiago dago kontzientziatua eta erraustegia zentzugabeko gauza bat dela ikusten duena. Duela gutxi oinez pasa nintzen bertatik. 12 makina ikusi nituen eta sei geldirik. Borrokan segi beharko dugu. Gutxi batzuentzako interes ekonomikoa baino ez dago hor.

Etorkezunean, Zubieta udalerrizate amesten duzu?

Legegintzaldiko aurreneko bilan, Zubietako Herri Batzarren haientzako Zubieta zer den galdetu zien bi alkateei. Udalik ez duen herria esan zuten batek, udal izaera ez duen bailara edo auzoa beste batzuk. Nik uste herria izan zela eta izan ere egingo dela berriz ere. Bide luzea izango da agian, baina lortzeko modukoa ere bada, bai baititu baliabideak. Agian horregatik izango da zailagoa herri izatea, baliabideak dituelako.

“Umerez biziko ditugu festak”

NOAUA! Ate joka dituzue festak. Nola biziko dituzue jaiak?

Nartxi Arrillaga: Festak herri giroan, umerez biziko ditugu, eta errespetua mantenduz.

Jaiak ere badira aipatu duzuenaren ildotik, herria egiteko modu bat ere?

Dударik ez. Herriak behar ditu festak eta festak behar du herria baita ere.

Pozarren, jardunaldien amaieran



Erretratua UEU, Jakin eta Usurbilgo Udalak antolatutako udako ikastaroaren amaieran eginikoa da.

Maialen Lujanbio eta Sustrai Colinaren bertso saioarekin, Usurbilgo sagardoarekin "euskal pentsamendu askatzailaren

alde" topa eginez eta ondoko talde argazkia aterata, pozik asko eta esker hitz artean amaitu zuten Udako Ikastaroko antolatzaileek, baita par-

te hartzaileek ere, bi eguneko udalerrri honek leku egin dion "euskara, generoa, jatorria eta klasea gurutzatzen ari diren leku" udako ikastaroa.

Enplegu prestakuntza programen arrakasta

Ondoko irudian duzue, hotelgintzako enplegu prestakuntza programan parte hartu duten Beterri-Buruntza eskualdeko langabetu eta eragileak, enpresa, Cebanc, Lanbide eta udal ordezkariak, berriki egin zuten ikasleen diploma banaketa ekitaldian. Balantze ezin baikorragoa egiten duten egitasmo honetaz. Tartean, Usurbilgo Udalak berak.

Lan munduratzeko helburu duen programa honetan jorrazten den bidea nabarmentzen dute. Prestakuntzaz gain, jarrera eta laguntza programa ere bai baita langatuentzat. Akonpainamendua jasotzen duten prozesu integral honetan ere, lan munduratzeko zailtasun gehien duten kolektiboen ahaldundze bat ere ematen da. Kasu honetan, egoera eta errea-



Eskualde mailan garatu da hotelgintzari lotutako programa.

litate ezberdinak bizi dituzten emakumeena.

Enplegu prestakuntza programaren amaieran lortzen den ziurtagiri profesionala bezain garrantzitsua da langabetuok jorrazten duten bidea, proiektuon sustatzaileentzat. Eragile ezberdinen arteko koordinazio lana ezinbestekoa dela aipatzen digute, eskualdeko langabetuen be-

harretara egokitutako programok gauzatzeko. Usurbilgo Udalak jada halako proiektuak sustatzen badaramatza hainbat urte. Hondakinen kudeaketari edota dependentsia egoeran dauden herritarrei begirako zainketa lanen inguruko enplegu prestakuntza programak eskaini izan dituzte aurretik. Bide honetan sakontzeko asmo argia du Udalak.

Euskara eta aisialdiko diru-laguntzak

Uztaileko azken astean biltzekoa da diru-laguntzen udal batzordea eta bertan aztertuko dituzte, ekainaren 26tik uztailaren 7ra euskara eta aisialdiko diru-laguntzetara herritarrek aurkeztu zituzten eskabideak. Adi, ebazpenen berri, atzerape-nik ez bada, abuztuko lehen hamabostaldian emango baitute usurbil.eus edota Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Gero erreklamazioak aurkezteko 10 eguneko epea zabalduko da. Behin betiko diru-laguntzen ebazpenak irailean argitaratuko dira.

Kultura, kirola, nekazaritza eta abeltzaintza, ingurumen eta gizarte zerbitzuen eremuetan 2017. urtean zehar egitasmo edo ekimen ezberdinak garatzeko udal diru-laguntzak bestalde, behin betiko onartu ditu Usurbilgo Udalak. Ebazpenen berri, uztailaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso dezakezue.

Osoko bilkura uztailaren 26an egingo da

Hilero azken asteartean izan ohi den Usurbilgo Udalen osoko bilkura egun bete atzeratuko dute oraingoan, uztailaren 25a jai eguna izango baita. Hilaren 26an izango da beraz plenoa, arratsaldeko 18:00etan.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haimar Zubeldia: “Orain beste amets batzuen bila noa”

Ia 20 urtez profesional mailan lehiatu ostean, erretiratzera doala iragarri du aste hasieran Haimar Zubeldiak. Igande honetan amaituko den Tourrean eta hilaren 29an ospatuko den Donostiako Klasi-kan parte hartu ostean erretiratu da usurbildarra.

“20 urterekin ilusioz gainezka Pantani, Zulle, Olano eta Jalaberten pelotoira iritsi nintzen Euskadi Taldearekin. 20 urte hauetan une magikoak bizi izan ditut Beloki, Lance, Basso eta Ulrich bezalako txirrindularien ondoan. 20 urte



San Estebango txirrindulariak Donostiako Klasikoan hartuko du erretiroa.

beranduago Froome eta Contadorren pelotoian, Donostiako klasikan zintzilikatuko dut neure azken dortsala”, adierazi du Zubeldiak.

Euskaltel, Astana eta Trek taldeak ere gogoan ditu usurbildarrak, momentu zoragarri asko bizi izan dituela oroitaraziz. Bide luze honetan alboan

izan dituenen aldetik jasotako laguntza ere eskertu du. “20 urte hauetan maite nautenen lider izanik, atzetik lanean izan dudana pelotoitxo gogoratu nahi dut: gurasoak, Kepa, Paco, Nazabal, nere anaia, Josune eta nere bi alabatxoak, baita ere babesa eman didazuen guztiei eta grupetakoei. Eskerrik asko guzti hau elkarrekin sortzen laguntzeagatik”.

“Beti izango naiz txirrindularia”
Maila profesionala utzi arren, argi dio halere, “ni beti izango naiz txirrindularia. Baina orain beste amets batzuen bila noa”.

Udako Kalera Martxa Usurbildik igaroko da

Kalera Kalera dinamikaren baitan, preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko Martxa antolatu da hilabete honetarako. Uztailearen 20an Gernikan abiatu eta uztailearen 27an amaituko da martxa Lakuntzan. Bertan gero lau egunez 20. Hatortxu Rock jaialdia ospatuko dute. Tarte horretan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako hainbat errepide eta herri zeharkatuko ditu. Usurbildik ere igaroko da.

Uztailearen 25ean, 16:00etan frontoian elkartzeko deialdia
Hilaren 25ean zehazkiago esanda, Getaria Hernanirekin lotuko duen 13 kilometroko etaparen baitan. Zarautzen trena hartuta helduko dira Kalera Martxako



Uztailearen 25ean 16:25ean iritsiko da martxa Usurbila.

partaideak Usurbila, arratsaldeko 16:25ean. Gero hemen- dik Hernani aldera joko dute. Martxari harrera egiteko, arratsaldeko 16:00etan frontoian elkartzeko deia egin dute. Handik kalejiran joango dira tren geltokiraino, eta bertan harrera

egingo zaie martxako partaideei.

Uztaileak 25, asteartea:
Getaria-Zarautz-Hernani, 13 km

- 09:00 Gosaria.
- 10:00 Irteera.
- 11:30 Harrera Zarautzen.
- 12:00 Free them all.
- 14:30 Bazkaria.
- 15:45 Irteera trenez Usurbila.
- 16:25 Usurbilen.
- 18:30 Harrera Hernanin.
- 19:30 Esku-Pilota txapelketa.
- 21:00 Afaria.
- 22:00 Poesia irakurraldia.

Egitarau osoa: kalerakalera.eus

Elkarretaratzeak
Uztailearen 28 eta abuztuaren 25erako elkarretaratze bana deitu du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak arratsaldeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Emakumeen arteko pala partida Zubietan
Uztaileak 25 asteartea
Arratsaldeko 18:00etan
Zubietako Errebote Plazan:
Perurena - Arrillaga
San Sebastian - Erasun

Emakumeen arteko herriko kirolak Zubietan
Uztaileak 31 astelehena
Arratsaldeko 19:00etan
Zubietako Errebote Plazan:
Aizkolariak:
Astondoa (Zeanuri)
Etxaburua (Zizurkil).

Harri-jasotzailea:
Etxeberria (Orio).

10. Baxurde Krosseko prestaketa lanak martxan dira
Baxurde Txiki U.T.T.-k finkatu da jada hamargarren ediziora heldu den kirol proba herrikoia hitzordua; irailaren 17an ospatuko da, igande goizez. 10:30ean abiatuko den lasterketarako bi ibilbide izango dira aukeran: 10,75 kilometrokoa bat, 5,2koa bestea. Lasterketarako aurrez eman ahalko da izena Oiarde Kiroldegian edo kirolprobak.com atarian. Edizio borobil honetan ere, “zuek bertan egotea gustatuko litzaziguke, kirol pixka bat egin eta goiz pasa on bat izatearren” adierazi dute antolatzaileek.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokal-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

dera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Kalezarren etxebizitza alokagai. 3 logela, garajea eta trastelekuarekin 673 547 332.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil

Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenea 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Astebururako langile bat behar dugu Laukoten okindegian. Bidali kurrikuluma helbide honetara: eelorza202@gmail.com

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauz zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198



Zorionak Haizea!
Uztailaren 30ean 7 urte beteko dituzu! Oso ondo pasa eguna! Muxu handi bat aita, ama eta Iraideren partez.



Zorionak Odei!
Uztailaren 25ean 6 urte beteko dituzu. Muxu potolo bat Aritz eta etxekoan partetik.



Zorionak Aratz!!
Uztailaren 26an 10 urte borobil betetzen dituzu!! Muxu potolo bat. Unax, Oihan, June eta Anje.



Zorionak Iker!! Muxu handi bat etxekoan partez. Ondo ospatu!!



Zorionak Uxue!
Uztailaren 18an 12 urte beteko dituzu! Muxu goxo bat Garazi, ama eta aitaren partetik!!



Zorionak Amets!
Muxu handi handi bat etxeko guztion partetik!!!



Zorionak Ekhi!
Larunbatean 7 urte beteko dituzu. Ea eguraldi ona egiten digun aurtengoan. Ondo pasa eta muxu potolo bat.



Zorionak Ibai!
Azkenean iritsi da zure eguna. Ondo pasa!



Zorionak Irati!
Gure etxeko erreginak 7 urte beteko ditu abuztuaren 5ean. Muxu handi bat eta ondo pasa...

Heriotzak
Ramon Aramburu Otaegui
86 urterekin hil zen uztailaren 12an Usurbilen

OHARRA: 2017ko irailaren 8an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: irailaren 4an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Neska gazte bat eskaintzen da euskarako eta gainontzeko ikasgaietako klase partikularrak emateko. Euskal Filologian lizentziatua, Mondragon Unibertsitatean Irakaskuntzako masterra bukatu berri. 687348223

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportetean umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehentik ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketara lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketara egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka:

619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lan egiten lan egongo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egongo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketara, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldarean lan egongo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egongo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatría laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketara lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduka lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoren zaintza, garbiketara lanak, tabernan arraskan aritzeko... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketara lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketara, jatetxe

batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

BESTELAKOAK

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburua... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehentik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ...	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGupuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskalategia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 20 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 23 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 24 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 25 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 26 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Uztailak 20 - uztailak 30

Osteguna 27 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 29 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 30 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.



Agenda uztaila

21 ostirala

■ Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen.
Uztailearen 31ra arte ikusgai.

22 larunbata

■ Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen.
Uztailearen 31ra arte ikusgai.

23 igandea

■ Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen.
Uztailearen 31ra arte ikusgai.

Abuztuaren 6an, Donostiako Musika Hamabostaldiko kontzertua

O hikoan duten moduan, Organo Zirkloko kontzertuetako bat Usurbilen egingo da. Abuztuaren 6an, arratsaldeko 20:00etan Salvatore Elizan. Yves Rechsteinerrek eskainiko dituen Berlioz, Franck, Saint-Saëns eta Oidor-en obrez gozatzeko aukera izango da. "Musika frantsesaren erreperitorio askotarikoaren bitartez, Usurbilgo Mutin/Cavaillé-Coll organoaren ezaugarri tinbrikoak nabarmenduko dira", iragarri dute antolatzaileek. Usurbilgo Udalak babestuko duen kontzerturako sarrera doakoa izango da.

Informazio gehiago:
quincenamusical.eus



Ives Rechsteinerren kontzertua 20:00etan izango da, Salvatore Elizan.

Uztailearen 25ean, Udako Kalera Martxari harrera egiteko deialdia

Uztailearen 25eko etapak Getaria, Zarautz eta Hernani lotuko ditu. Egun horretan Usurbildik igaroko da Udako Kalera Martxa. Martxako kideak arratsaldeko 16:30ak aldera iritsiko dira tren geltokira.

Martxari harrera egiteko, arratsaldeko 16:00etan biltzeko hitzordua finkatu dute frontoian. Handik kalejiran joateko deia egin da tren geltokiraino, eta bertan harrera egingo zaie Zarautzik datozen martxako partaideei.

Datozenak

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal preso eta iheslarien eskubi-deen aldeko hileroko elkarretaratzea. Uztaileak 28 ostirala, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

■ Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Uztailearen 28an, Pintxo-pote musikatua eta erromeria

Dema plaza eta frontoi inguruan:

- 19:00etan ekitaldia.
- Ondoren, parrillan egindako oilasko pintxoak.
- 22:00-01:00 Erromeria Erokomeri taldearekin.
- Antolatzailea: Hurbilago Elkartea.



Dema plazan eta frontoi inguruan egingo da uztailearen 28ko pintxo-potea.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ELORZA

O BRAK ETA
ER REFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Ugartondon 92 babestutako
etxebizitza eraikiko dira.
92 etxebizitza hauetatik,
46 babes ofizialekoak izango dira
eta gainontzeko **46ak tasatuak.**



92

BABESTUTAKO ETXEBIZITZA USURBILDARRON NEURRIRA

Ugartondo

Izen emateko epea:

2017ko uztailaren 8tik uztailaren 27ra, biak barne

Eskabideak: Udalaren Erregistroan, astelehenetik ostiralera, 8:30-15:00

informazio gehiago: ☎ **943 37 19 51** @ **etxebizitza@usurbil.eus**

Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak:

- NAN (eskataile guztiena). - Familia ugarien, banatzeen edo dibortzioen, eta alargunen kasuan, bakoitzari dagokion ziurtagiria.
- Etxebideko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko ziurtagiria. - Zubietako bizilagunen kasuan, errola-ziurtagiria. 2016ko Errenta Aitorpena.





Ondo pasa Santiotan!

